

# I P U I Ñ A K

Buztintza'tar Errose'k eginda,  
ta  
Kerexeta'tar Jaime'ren  
ardurapean argitaratuta

## III

### AZERI GAZTAE-ZALEA

Gure aitita zaarren aldietan. Iñungane-mendian, mendi erpin-erpiñean, azeritza bat bizi zan. Azeri ari, janari guztien artean, ardi-esnez egiñiko gaztae gozo-gozoa atsegiñen izaten yakon; gaztae-zale aundia zan. Gaztaia nun eta noz jango ete-eban oldoztuten (pentzetan) ziarduan beti; egunez eta gabez, gaztaiaz bakarrik egiten eban ames. Alako gaztae-zalerik!

Ori zala-ta, bere jangurea asetzearren, artzain-txaboletatik eta base-txe inguruetatik sarri-sarritan igaroten zan. Eta, iñun gaztae-usaiñik nabaitzen ba'eban nabaitu, surra astin eta buztana astiñago ebalá, antxe bertan geratzen zan, agorako janari gozoaren zain.

Illuntze baten, gure azeria, Urtsule etxekandrearen basetxeko atarte zabalera eldu zan; eta, begi ta belarri, barrura adi-adi jarrita, atarte aretako jarleku-azpian patxaraz-patxaraz jesarri zan. Eta alan egoala, abesti baten durundia etorri yakon belarrira; barrutik etorren abots gozo au zan:

Baso baltzean okilla,  
solo landuan mokilla;  
lanaren ordain jan daigun orain  
emen daukagun opilla.

Ori entzunda, azeriak esan eban: «Nor ete-dok abeslaria? Urtsule ala bere alabea?»

Ta, barrero be, belarriak adi-adi jarri ebazan. Apur baten alan egonda, abeslaria Urtsule zala igarri eban.

«Iño! —iñoan azeriak—; andra au gaur alai yabik; pozarren yabik. Orren pozez egoteko, ze barri on ete-dok bertan? Kortako bei gorriak txal barriren bat ekarri ete-yok, ba? Ala... ala... artaldeko ardi bako-txak bildots biña ekarri ete-yautsezak? Oi, olako bat ba'litzok, orrai-



tiño, esne ta mesne, emengo gaztae pilloak! (Eta gaztai-usaiña nabai-tuaz): Ene!, ta gaztaia egiten ziarduk oraintxe be! Bai, orretantxe ziarduk ekin be... Barrutik datorren usain gozoak argiro diñostak... Nik egin bear yoat sabelkadea! Iru-lau gaztae oraintxe bertan eskatu bear yau-tsoadaz...».

Eta pozarren saltoka asita, abestiz eskatzca erabagi eban:

Urtsule ta alaba	Zuen biotz onetan	Janari gozo orrezaz
ama-alaba onak,	maitasuna ugari;	asetu naizue:
mendi-basoetako	goserik dagoanaz	gaztairik ederrena
larrosa ederrak.	zaitzeze erruki.	emon eidazue.

Urtsule ta alabeak, azeriaren abestia ixil-ixilik entzun eben. Ama-alabok abesti-abotsaz ikaratu egin ziran, atean egoana nor edo zer zan arean be ez ekien-eta. Eta zana jakiteko, Urtsule andreak atartera urten bear izan eban. Eta atarteratu zanean, Iñungane'ko azeri gosakilla ikusi eban. Zeren billa etorren itandu eutsanean, gaztaiak eskatu eutsazan.

—Gaztaiak, gaztaiak bear dodaz nik!—zirautsan.

—Ez yagok emen gaztairik—erantzun eutsan Urtsule'k.

—Bai, ba-yagozan... Ortik datorren usain gozoak ezetara be ezin iruzur egin. Ba-yagozan...

—Egia esateko, ba-yaukoadaz euki; baiña ez iri ta ez iñori emoteko. Biar goizean merkatura eroateko, guztiak otzara zabal baten ipiñita yaukoadaz-ta...

—Zenbat daukazan, ba?

Eta Urtsule'k, apur baten pentzauaz, esan eutsan:

Iru ta iru, sei,  
ta iru bederatzi,  
ta amar emeretzi,  
ta bat ogei;  
zirkillu ta mirkillu,  
irurogei.

—Jasaus! Ori don pilloa! Irurogei gaztae! Batzuk, oraitiño, emongo yaustazan.

—Ezin emon izango daikeat bat be, ba...

—Bat bera be ez?

Urtsule'ren zekenkeria ikusita, azeriak asarrez iges egin eban. Buztana berantza ebala, Iñungane mendira joan zan. «Andra zeken ori merkatura joan baiño len, gaztaien batzuk arrapauko yautsoadaz, ba; bestela, azeria be ez nok izango...»—iñoan bidean joiala.

---

Biaramon goizean, egunsentiak bere argia emon orduko, Iñungane'ko azeria bidera joan zan; eta, antxe, bidearen erdian, abarka bat ipiñi eban: ume-abarkatxo polita zan. Onetan, Urtsule andrea gazta-otzarea buruan ebala agertu zan; eta bide aretan berreun oinkada egin orduko, bidearen erdi-erdian ume-abarkatxoa ikusi eban.

—Emen abarkatxoaren polita! —esan eban—. Baiña, tamalez, lagunik ez yaukon; bakarra-edo don... Bestela, gure neskatuarentzat alagakoak izango litzakezan...

Eta ori esanda, abarkea aurkitu eban lekuan bertan itzita, bidean aurrera egin eban. Azeriak, baiña, Urtsule'k esan eban guztia, bideertzeko zugazpetik belarri-zur entzun eban: zer jazoko, be, antxe gordeta egoan-eta.

Eta azeri maltzurak, len berak bidean itzi eban abarkatxoa artuta, bide-zidorretik aurrera joanda, emakumea igaroteko zan bidean lengo abarkatxoa bera ipiñi eban.

Urtsule, abarkatxoa bigarrenez ikusi ebanean, besteren bat zalakotan, poz-pozik jarri zan; eta esan eban:

—Onakorik! Emen beste abarka bat! Eta berau or bidean ikusi yonadaren laguna dala esango naieuken... Bai, arexen laguna don, izan be; bardin-bardiña don-eta. Baiña, auxe tamala! Len aurkitu izan yondan abarkatxoa, zetako ez yonat jaso, baiña? Ni lako lelarik iñun ez yagon egon be... Lengoa artu izan ba'ñon artu, oraitiño, orain gure

neskatoak abarka biko ederra eukiko laieuken. Egin-egiñean be, oiñeta-ko batzuen bearra ba-yaukan... Noian, noian lengo bideetatik beste oiñetakoaren billa.

Ta Urtsule anderea, gaztae-otzarea bide-erdian bertan-bera itzita, beste abarkatxoaren billa joan zan. Eta azeri gaiztoa, orduan be, emakumeak egiten ebanari begira-begira egokion; eta, aren poza ta poza gaztae-otzara aundia bide-erdian ikusi ebanean!

Arrapalada baten bidera jatsi, ta otzarako gaztae guztiak atz-miazketan jan ebazan. Aren ekiña orretan! Ase ta bete egin zan.

Gero, barriz, gaztaiak jan ondoren, egarri aundia sortu yakon; egarriz itoten aurkitu zan. Eta «Inpenu-errekara» joanda, bertako ur guztia edan eban. Eta urez «putxi-putxi» eginda gero, basetxeko solora joanda, lotan gelditu zan.

Alako baten, barruko urak parrastadaz urteten asi yakozan. Urten eta urten... Alako uriolarik! Ur ugari arek, soloko gari guztiak tatarraz eroan ebazan.

Soloko garia urak ondatu ebanean, inguruan aurkitzen zan mutiko zoli batek, Urtsule andereari dei egin eutsan:

—Urtsule!, urak daroa garia...! Urtsule!, urak daroala garia...!, azeri maltzuraren urak...

Orduan, Urtsule etxekandrea, mutiko zoliaren deadar errimeak bizkortuta, zer jazo ete-zeitekean ikustera urten zan; eta azeri gaiztoak basetxeko soloan egin eban triskantzca ikusi ebanean, asarre-bitsetan jarri zan.

Azeri zirtzil arek, abarkatxoaz polito-polito atzipetuta, lenengo, otzarako gaztae guztiak jan eutsazan, eta gero, soloko gariak ondatu.

Urtsule'k, azeria solo-munan lozorroan ziarduala aurkitu eban; eta buztanetik oraturik, zartada galantak emon eutsazan; eta makillaka ta makillaka sekulako edertoen astinduta gero, basetxeko kortara eroan eban, eta antxe, kortako giltzape illunean sartu eban.

Kortan, bei bat, txarri bat eta asto bat egozan. Azeriak, arto-garauna lako negar-arpuluak isuriten ebazala, negar eta negar egiten eban. Aren uluak eta garraziak Mugarra bera bigundu zeikean. Alako negartirik...!

—Azeri, zer dala-ta egiten dok orrenbeste ulu ta negar?—itandu eutsan astoak.

—Zegaitik egiten yoadan negar? Ire etxekandra okerrak emoniko zartada errimeak eragiten yaustek negar, eta ez bestek...—erantzun eutsan azeriak.

—Zegaitik jo au, ba?

—Urak soloa ondatu yautsalako jo naiok... Urioleak garia eroan yautsalako... Olakorik, orraitño, inun ez dok jazo... Ire etxekandra zir-

tzillak egiñikoari, zer deritxok, astoko? Urak egiñiko kaltea neure bizkar gaxoari ezartea, gauzarik okerreña ez ete-dok?

—Olantxe dok, izan be: urak egiñiko kaltearen errua euri ezartea, bidebagekeririk baltzena dok... Laiñoa-beera datorrena, nok atzeratu? Goitik beerakoari, zein besok eutsi? Eta euriaren errua, urak egiñiko kaltearen errua, eure lepoari ezarri...! Gauza bakan ori, edonoz ez yok ulertuko... Erruki aut...

Astoa ta azeria barriketean ziarduen artean, beia ta txarria, an, korta bazterrean, ixil-ixilik egozan. Iñungane'ko azeri aundia aspaldian ezagutzen eben-eta, aska utsaren ertzer bada-etzpada be musturrik ez eben eroan: zerbait jazo zeitekearen bildurrez egozan-eta.

—I, astoko —esan eutsan azeriak arpegi tamaltsuz—: ire biotz ederreko errukia bear danez agertzeko, mesede aundi bat egin bear daustak gaur. Begira: Urtsule'k kortako atea edegi dagianean, ortxe eure lepoan jesarrita nagoala, ariñeketa baten Iñungane mendira eroan bear nok... Eroango ete-nok?... Mesede aundi ori egiten ba'daustak egin, gura-añña lasto ta gura-añña arto emongo dauadaz...

Eta astoak, gura-añña arto ta lasto jatearren, oso-osoan baietz esan eutsan.

Aretan, gaberdi-inguruan, azeria zarata baten asi zan: «Sua, sua! Etxea erretan!», iñoan. Eta Urtsule, azeriaren zaratetara jagita, sua egoalakoan ixututa, kortara joan zan; eta kortako atea edegi zaneke, astoak, azeri maltzurra lepoan ebalá, lauoinka iges egin eban.

Iñungane-mendira eldu ziranean, baiña, azeria, astoari ez esker eta ez ezertxo be esan bagarik, rast!, bere zulora sartu zan. Astoa, osterá, azeria atzera agertuko zalakoan, zulo-ertzean zain geratu zan: lastoa ta artoa jateko gurariz egoan gaxoa-ta.

Baiña azeria bere zulotik egundo ez zan urteten-eta, gure astoa estutu egin zan. Eta orduan, astoak, bere burua zulorantz jarrita, abots tamaltsuz esan eutsan:

—Azeri, arto ta lastoa noz emongo daustazak? Ala... nik egiñiko mesedearen gomutarik be ez ete-dok?

—Ajajá! Oraindiño be or ago, astoko?—erantzun eutsan azeriak—. Orain be or? Nik emoniko artoaz eta lastoaz ire zilbota bete bear ba'dok, orraitíño, ez ago orren txarto be...! Barriro be egon bear izango dok, bai, belarri-luze ta buru-aundi, txantxetan-benetan negar-kantari! Beññolako «zereko zeren» esakun au, ez ete-dok buruan?

Agindua bat, emona bi;  
aginduz poz-pozik izan adi.

Eta orduan, astoa, destaiñezko berba lakarrak entzunda gero, arrantza baten asi zan. Barriro be azeriak, barre-santzo luzcak egin ebazan; eta gero, asarre-antzean, esan eutsan:

Ze arto ta ze lasto;  
oa etxera, astoko!

Astoaren tamala ori entzundakoan! Eta azeriaren eskertxarraz ikarata, asto gaxoa alako baten mendia-beera abiau zan. Bide guztia negarrez igaro eban. Eta, atan-orretan, etxera eldu zanean, korta baztarrera joanda, bere sabel-gosea asetu gurarik, «garagarrak» irabazten asi zan.

Orretan zala, Urtsule etxekandrea adaki bat eskuetan ebalu urreratu yakon; eta, makilleaz emon-emonak eginda gero, esan eutsan:

—Or dozak artoa, lastoa ta garagarra be... Azeri gaiztoaren laguntzaille onena eu izan az, e? Etxean egoteko beste be ez az, astotzar ori...

Eta asto gaxoak, an buru-zuriketean astea alper-alperreko zala konturatu zanean, belarri biak zapal-zapal ebazala, esan eban:

On-egiñaren saria  
ate-ostean makilla.  
An makilla ta emen makilla,  
astoarentzat beti makilla.

Iñungane'ko azeri zar aundiak, emakume bakunari ta asto gaxoari, ortik-emendik, lakoratza iñungo ondoen sartu eutsen.

Kontuz ibilli azeriaz. Gogoan izan esakun au:

Azeria, bere ongarri,  
ta besteen kaltegarri.

